


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2025-06-20 / 862 ZENBAKIA / 21. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



**Gimnasia erritmikoa
lantzen ari dira
Andoainen eta
Urnietan, Oskarbiren
taldearekin** / 12-13

**Urnietako Akelarrea,
San Juan bezperan,
Txanbolin
txistularien eta
Sorginen eskutik** / 15

**Ikasturte
amaierako ikuskizuna
egin zuen Egape
Dantza Taldeak,
Saroben** / 16



Jaiez gozatzeko egunak

Ekainaren 20an hasi eta 25era bitarte, jailetan murgilduko da Andoain / 5-11



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Juankar Alberdi, gogoan

Urtero lez, hitzordua egin zuten urnietarrek ekainaren 15ean, Juankar Alberdi Martirenaren oroimenez, "Ekidin zitekeen" lemapean. Egiari Zor fundazioak deituta, kontzejupean egin zuten omenaldia, eguerdiko 12:00etan

Erredakzioa URNIETA

Duela 37 urte hil zen Juankar Alberdi Martirena herrikidea, Herrera de la Manchako espetxean. Hori horrela, urtero bezala, ekainaren 15ean, hitzordua egin zuten San Juan plazan urnietarrek: hura gogora ekartzeaz gain, "egia justizia eta oroimena" eskatu zituzten. "Ekidin zitekeen" lemapean, eguerdiko 12:00etan egin zuten ekitaldia, Egiari Zor fundazioaren eskutik.

Txalaparta, bertsoak, Agurra, senideei lore-eskaintza... Omenduaren gertukoek ez ezik, Pilar Garaialdek ere hartu zuen hitza, Egiari Zor fundazioaren izenean. Testuinguruan ipintze aldera, zenbakietara jo zuen erakunde-ko ordezkariak: azken 40 urtee-

tan, 36 euskal preso politikok eta 16 senidek galdu dute bizia egoera ezberdinetan eta, horiez gain, bi pertsonak bere buruaz beste egin dute, kartzelaratzeari sailhestu nahian. Bada, Garaialderen hitzetan, ezin dira heriotza horiek guztiak ulertu "sistematikoki" aplikatu diren salbuespen-neurrrietatik kanpo, ez eta Juankar Alberdirena ere: "Salbuespeneko espetxe-sistema hori oinarritzko eskubideak errespetatzen ez dituen sistema da". Hori horrela, heriotza horiek guztiek badute, fundazioaren iritziz, zerbait komunean: "Salbuespeneko neurri politikoen aplikazioa erabakigarria izan da". Besteak beste, behar bezalakoa osasun arreta ukatzea, kartzela barruko baldintza go-

gorrak, komunikazio guztien interbentzio iraunkorra eta urruntze zein dispertsio-politikak.

Hala, salbuespeneko espetxe-politika gobernuek hartutako erabakien emaitza dela iritzita, "erantzuleengan" ipini zuen begirada: "Aitortu beharko dute euskal presoei espetxe politika ankerra ezarri zitzaizela arrazoi politikoak direla medio" eta, bide batez, "onartu egin zutela preso horien osasun fisikoaren eta psikologikoaren higadura. Haien artean, Juankar Alberdirena". Horren aurrean, "bizikidetza oinarri duen gizarte berria eraikitzen jarraitzeko", indarkeria instituzionala aintzat hartuta, ezinbestekoa da ordezkariarentzat presoek eta haien



Agurra dantzatu zioten omenduari, lore-eskaintzaren aurretik. AIURRI

senideek zein lagunek jasandako biolentziak, izan zuzenekoak, izan zeharkakoak aitortzea, erreparatzea eta berriro ez gertatzeko bermeak ematea: "Guk argi daukagu: euskal presoen familiei eta hurbilekoei arrazoi politikoengatik bidegabeko zigor arbitrarioa ezarri zitzaien".

Memoria, gizarte anitz batean, bizikidetza demokratikoa gartzeko beharrezko ariketa gisa

ulertuta, ezin da, fundazioaren ustez, "inola ere egokitu" historia kolektiboaren zati batzuk "ahazten" dituzten arau batzuetara: "Pairatutako indarkeriak eragindako sufrimendu guztia ofizialki aitortu eta erreparatu behar da. Urraketa horiek guztiek ere lekua izan behar dute memoria-politika publikoetan, baita Juankar Alberdiren heriotzak ere".



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia. idaizkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnieta

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

BABESLEAK:



Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

ZIURTAGIRIA:



IN MEMORIAM

FERMIN LEIZAOLA ETNOLOGOA



Fermin Leizaola, Andoaingo Gordailuan. Museoko sarrera-liburua berak estreinatu zuen. AIURRI

Fermin Leizaola ikerlari ezaguna zendu da

Fermin Leizaola Calvo (Donostia, 1943) herri-ondarearen azterketan eta zabalkundean ibilbide emankorra egindako ikerlaria zendu zen ekainaren 16an. Andoaingera bisitaldi ugari egin zituen, bereziki, azken urteotan

Xabier Lasa ANDOAIN
Etnografoa, antropologoa, espeleologoa... izanik, Euskal Herriko ondare historikoaren eta kulturalaren jakintzan sakontzen aritu zen hamarkadetan. EHUn irakasle gisa graduondoko klaseak emateaz gain, Aranzadi Zientzia elkartearen Etnografia Saileko zuzendaria izan zen, iaz arte, eta Etniker Euskal Herriko etnografiarako ikerketa taldeko idazkaria ere bazen. 2018an, euskal kulturaren alde nabarmendu diren pertsonen urtero eman ohi

dien Manuel Lekuona saria jaso zuen, Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Burdina elkarteak gonbidatuta, Andoaingera etorri izan zen hainbatetan. Jakitun zen gaixotasun larria zeukala, eta Burdinakoei aitortu zien, behin edo behin, ez zitzaiola denbora askorik geratzen bizitzeko eta zeukan hori ondo neurtu nahi zuela. Txanka Arruti Burdina elkarteko kideak Leizaola aparteko kulturgile gisa definitu du Leizaola, "ezinbesteko erreferentzia izan da kultur ondarearen

inguruan gabiltzan guztiontzat. Bere ibilbide osoa, eredugarria zaigu. Burdina elkarteak jaio zenez geroztik, arrasto sakona utzi digun ikerlaria izan da, 2019ko uztaillean joan zitzaigun Manu Izagirrerekin batera. Izugarri ikasi dugu bi maisu horien ondoan; iparrorratz izan dira guretzat". Leizaola noiz eta nola ezagutu zuten gogoan hartu du Arrutik: "Areson, Ulizar kobazuloan, Leizaola ezagutzeko parada, eta geroztik Gordelekura maiz hurbildu zen".

Burdinarekin harreman estua zuen



Leizaola, Burdinako kideekin, Gordelekua museoan. AIURRI

Andoaingo Gordailua Gordelekura egindako lehen bisitaldian bere jakinduria agertu zuen, museoko tresna bakoitza ikusi orduko, hari buruzko kontakizun interesgarria egin baitzuen. Gozamina zen haren azalpenak entzutea.



Leizotz aldeko karobietara bisitaldia egin zueneko. AIURRI

Andoaingo karobiak 2023ko urrian, Leizotz eta Goiburua auzoetan berreskuratu dituzten karobiak ikustera hurbildu zen. Handik gutxira, San Telmo museoan, karobien eraikinen gaineko hitzaldia eman zuen.



Leizaola, Egibar, Aguirre eta Larrea, Urigainen, 1995ean. AIURRI

Andoaingo Paperak Iñaki Aguirre Leiceagak "Andoaingo artzain eraikinak" liburua plazaratu zuen 1995eko urrian, Andoaingo Paperak bildumako 7. alean. Leizaola gertu izan zuen langintza hartan, eta aurkezpen ekitaldira hurbildu zen.



Mikelez, Goenaga, Huizi, Ruiz eta Urdangarin, argazkian. EAJ-PNV

"EAJ-PNVk jakin izan du akordio erabakigarriak lortzen"

2023-207 agintaldiaren balantzea egin du Andoaingo EAJ-PNV alderdiak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Andoainen, aurrerapenaren alde, gehiago egin dugu oposiziotik, EH Bilduk gobernutik baino", dio Andoaingo EAJ-PNVk. Eta honako hau erantsi: "Gobernuan egon ez arren, argi dugu alderdia izan dela eskua luzatu, eta luzaroan espero ziren proiektuak bultzatzeko akordio giltzarriak lortu dituen. EAJ-PNVk akordioaren, elkarriketaren eta erantzukizunaren aldeko apustua egin du".

Imanol Goenaga buru den alderdiarentzat, "EH Bilduren taldeak norabide argirik gabe gobernatu du. Hala eta guztiz ere, EAJ-PNVk jakin izan du zubiak eraikitzen eta akordio erabakigarriak lortzen, hala nola 2024ko eta 2025eko aurrekontuak Andoainen aldeko akordioa izenburupean sinatutakoak. EAJ-PNVk Andoaingo etorkizunarekin duen konpromisoa,

kritikatik harago doa". Herria hobetzeko proposamenak eta inbertsioak gidatu dituztela nabarmendu dute. Hainbat proposamen zehatz zerrendatu ostean, EAJ-PNV-k Andoainek epe luzean pentsatzen duen lidergoa behar duela defendatzen du: "Zorionez, Andoainen, aurrerabidearen motorra guk jarri dugu, ez EH Bilduk. EAJ-PNVtik anbizio handiagoz egin nahi dugu politika eta arduraz lan egiten jarraituko dugu Andoain atzean gera ez dadin".

Ziakoren saneamendua, Ama Kandidaren eraldatzea, Leizotz auzoko ur-hornidurako sarearen eraberritzea eta beste hainbat egitasmok jeltzaleen zigilua daramatela adierazi dute. Eta obra handien kasuan, "Allurraldeko kiroldegia handitze proiektuak edo udal liburutegi berriak eraikitzen geldirik jarraitzen dute".

Zabalik da Lasarte-Oriaranzko errepide berria

Martxan da, jada, Lasarte-Oriaranzko errepide berria. Ermotegin, Langarda auzunearen sarrerako biribilgunean hasten da eta bat egiten du Zabaletan gora, Lasarte-Oriaranzko norabidea duen bidearekin. Azken hori, une honetan, itxita dago eta biribilguneetik bertatik jo beharko dute herritarrek, lanak guztiz amaitu bitartean.

2024 urtearen amaiera aldean ekin zitzaion lanei eta, Urrietako Udalak adierazi duenez, horrela, "Zabaleta auzoak jasaten duen trafiko handia arinduko

da". Hari horri tiraka, urte luzez, hautsak harrotu ditu bertako bizilagunen artean gaiak. Horregatik, beraiekin harremanetan jarri da Aiurri, beren iritzia jasotzeko. Horietako batek adierazi duenez, "errepide zaharrera sartzeko zatiak estua dirudi eta gaizki bukatuta dago". Era berean, aldapan dauden semaforoak kentzea nahi du, baita kutxatila-estalki bat konpontzea ere, "oso baxu baitago, eta zarata handia egiten baitu, herriaren erdiguneko errepidearekin bat egiten duen sarbide zaharrean".

DEIALDIA

ETXERAT ANDOAIN

Hilaren 27an, elkarretaratze berezia, Zumea plazan

Hamarkada askoren ostean, ez da euskal presorik izango Andoainen. Etxeratek jakinarazi duen bezala, Axier Oiartzabal Txapartegi aske gelditu da, zigor osoa bete ostean. 2001eko irailean atxilotu zuten eta aske geratu da ia 24 urteren ondoren. 2024ko maiatzean, 3. gradua ezarri zioten eta iazko abendutik baliabide

telematikoen bidez bete du zigorra. Hori dela eta, Andoaingo Sarek dei egiten die andoaindar guztiei Zumea plazan egingo den elkarretaratzera hurbil daitezen. Izan ere, Axier herrikideak espetxealdia amaitu ostean, azken hamarkadatan lehen aldia izango da andoaindarrik ez dagoela arrazoi politikoen-egatik preso Espainiako zein

Frantziako espetxeetan. Beraz, gainerako euskal preso, iheslari eta deportatuen auziari konponbidea emateko eta etxean egon behar dutela aldarrikatzeko (are gehiago, kontuan izanik badagoela Andoainen familia, oraindik ere, kide bat espetxean duena) kontzentrazio berezia egingo da, arratsaldeko 19:00etan, Zumea plazan.

Eredu energetiko jasangarria indartzeko hitzarmenak

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu du lurraldeko hamar garapen agentziekin

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak 600.000 euro bideratuko ditu eskualdeko energia planak indartzeko. Beterri-Buruntzan, esaterako, energia ziurtapen eta la-

guntza zerbitzuak eskainiko zaizkie enpresei. Hitzarmenean izan zen Patxi Ibarguren, Beterri-Buruntzako Mankomunitateko lehendakaria eta Hernaniko alkateordea. Jose Ignacio Asensio Foru Diputatuak honakoa adie-

razi zuen: "Gipuzkoan trantsizio energetiko justu, jasangarri eta hurbilekoa finkatzeko urratsak ematen jarraitzen dugu. Eskualdeko energia-planak bultzatzeak aukera ematen digu toki-eremutik zuzenean jarduteko. Eredu energetiko demokratiko eta bidezkoago baten aldeko apustua egiten dugu". Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu du lurraldeko hamar garapen agentziekin, energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa indartzeko.



Berriki sinatu dute lankidetzat-hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundian. ALDUNDIA



Udal ordezkariak eta San Juan jaien antolaketan parte hartu duten hainbat elkarte izan ziren aurtengo programa aurkezteko agerraldian, Goikoplazan. AIURRI

BERTAN DIRA SANJUANAK, JAIEZ GOZATZEKO EGUNAK



BAIETZ GABE, EZETZ DA
JAJETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!
EZ IZAN KONPLIZE



ANDOAINO UDALA

Jaiak eragileen ahotan

Udaleko ordezkari politikoei eta Jai Batzordean parte hartu duten zenbait elkarten ordezkariak San Juan jaien programazioa aurkeztu zuten Goikoplazan, ekainaren 12an egin zuten agerraldian

Xabier Lasa ANDOAIN

Udalak, eskerrak eman nahi izan dizkie guztiei, euren egin-kizuna jaietarako "azpimarregarria eta ezinbestekoa" dela adieraztearekin batera.

Xabat Amilibia (Gazteleku Pilota Eskola):

"Pilota zaleek badaukate zertan gozatua San Juan jaietan; ez daukate aitzakiarik Arrateko pilotalekura edo Kontzejupera ez hurbiltzeko egunotan. Egin kontu: ostiraleko pregoiaren ostean, Arraten, ilunabarrean, paleta larruz eta pala motzean partiduak izango dira, eta baita ere, erremonteko profesionalak; azken horretan, Aritz Eskudero eta Jon Irazu herri-tarrak! Larunbat goizean, eskuzko gaztetxoaren finalak; eta

arratsaldean, berriz, zesta puntako San Juan txapelketako finalak. Hurrengo egunean, bi pilota jaialdi bata bestearen segidan; Arrate, lehenbizi, Gipuzkoako pala txapelketako finala, eta ondoren, Kontzejupera, eskuzko finalak.

San Juanak euskal joko eta tradizioekin lotu izan dira beti, eta pilotari dagokionez behintzat, eusten zaio joerari horri. Gazteleku pilota eskolaren ikuspegitik, ahalegin handia eskatzen digute San Juan jaiak, baina gustura aritzen gara, Udalaren laguntza ere badugu-eta. Ondo moldatzen gara klubeko kideak elkarrekin, eta maitasunez lantzen dugu pilota harrobitik hasita. Emaizak ere, bistan daude: Gipuzkoan, herriarteko lau txapelketa jartzen dira jokoan,

eta horietatik hirutan hartu dugu parte aurtengo denboraldian. Ez hori bakarrik, batean txapela irabazi dugu, eta bigarrenean, finalera iristeko zorian gara".

Nerea Arregi (Olagain Udal Txistulari elkarte)

"Galtza bete lan ibiltzen gara Sanjuanetan, txistulariak. Geure artean umorez esan ohi dugu polo urdina lehen egunean jantzen dugula, eta ez dugula kentzen azken eguna pasa arte. Izan ere, larunbatean ez beste gainerako egunetan, badaukagu modu bateko edo besteko saioaren bat! Programa eskutan hartuta, edonork esango luke ezinbestekoa dela txistuaren hotsa jaietan. Ez dakit herriartek sumatzen eta estimatzen ote duten gure



Asier Lopez de Arregi eta Neide Garmendia Lebiton Konpartsako kideak. AIURRI

parte-hartze aktiboa, baietz espero dut!

Libratzeko daukagun egun hori, igandeko kontzertuaren azken prestaketak egiteko hartuko dugu beharbada. Izan ere, berezi-berezia izaten da kontzertua guretzat; gonbidatu ugari

erakartzen ditugu, abeslariak, dantzariak, musika-joleak... Nor-tzuk izango diren horiek, ezin da argitu oraingoz, ezjakintasun puntu horrek ere ikusmina pizten dielako gure jarraitzaileei. Publiko fidela daukagu emanaldi horretarako, hutsik egiten ez



IKAI VANS

Autokarabana eta kanperren alokairua, mantenua eta salmenta

Gora Sanjuanak!



Balastrain Mabeina 4,
9 pabilioia
20140 Andoain - Gipuzkoa
T. 943 098 132
info@ikaivans.com



BRIKO GOROS
Gora Sanjuanak!



GOROSTIDI Burdindegia

**Kale Nagusia, 3
Andoain
620 881 472**

www.brikogoros.com



DANENA

Ondo pasa Sanjuanetan!



Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain



*Eguneko menua
Plater konbinatuak
Bokatak*



duena; adinean gora doa, eta nahiko genuke gazteagoak ere hurbilduko balira, polita izaten baita ikuskizuna nire iritziz. Aurtengo berrikuntza gisa, aipatuko nuke lekuz aldatuko dela; Goikoplazan bai, baina goialdean, frontoiko ezker paretaren kontra.

Txistua jotzea egokitzen zaizkigun saioetatik, aipatu kontzertu hori kenduta, gainerakoak nahiko antzekoak izaten dira urtez urte. Nolanahi ere, horietako bi saio aipatuko nituzke bereziki: San Juan bezperan, suaren aurretik, San Juan Zortzikoa joz eta Etxeberrieta auzotik abiatu eta herri guztia

zeharkatuz ilunabarrean egiten dugun kalejira, eta, ondorengo San Juan suaren ospakizun polita. Hori batetik, eta bestetik, Axeri Dantza, aparteko ospakizuna bizi du aurten dantza herrikoi horrek, eta Olagain elkartek bere ekarpena egingo du plazan, oholta txistulariz beteta”.

EGITARAUA: EKAINAK 20-25

EKAINAK 20

OSTIRALA

17:00 Joko sorta 12-17 urtekoentzat, Goikoplazan. Handik txupinazora abiatuko dira. Euriarekin, Anbrosia Olabideko Gazte Lokalean.

18:00 Jaietako kartel lehiaketako sari banaketa ekitaldia, Kontzejupean.

18:30 Lebiton buruhandi eta erraldoien konpartsa, Olagain txistulari taldea, Gora Kaletxiki Txaranga, Udal Musika Eskolako eskusoinu taldea eta Gora Kaletxiki txarangaren kalejira; Goikoplazara iritsiko dira.

19:00 Pregoia, udaletxeko balkoitik, Axeri Dantza taldearen eskutik. Jaien hasierako txupinazoa. Txupinazoaren ondoren, Gora Kaletxiki Txaranga Luis Fracaren "Andoain" doinua joko du.

20:00-21:00 Pilota partidak Arrate pilotalekuan: paleta larruz edo pala motzean.

22:00-00:00 Erremonte profesionala: Aritz Eskudero eta Jon Irazu.

23:00-03:30 Kontzertuak Nafarroa plazan: Brigade Loco eta Crim taldeak.

EKAINAK 21

LARUNBATA

10:00-14:00 Pilota partidak Arrate pilotalekuan: San Juan txapelketako finalak, eskuz, benjamin, alebin eta infantil mailatan.

10:00 Bertxin Xtrem II lasterketa, Osin Trail elkarteak antolatuta. Sari banaketa, Otieta parkean.

10:30-13:00 16 urtez azpikoen xake txapelketa Goikoplazan. Izen-ematea 10:15ean. Euriarekin, San Martin elizako arkupeetan.

11:00-12:30 XX. Bizikleta festa Goikoplazan. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa ekarri beharko ditu. Opariak parte hartzen duten guztientzat. 2-12 urte arteko haurrek parte hartzeko aukera izango dute. Izen-ematea, proba hasi baino 30 minutu lehenago. Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.

12:00 Kantu kalejira, Goikoplazan hasita. Maizorri txalapartariak lagundurik kalez kale ibiliko dira.

14:30 Txuleta jana La Salle-Berrozpe ikastetxeko jolastokian. Egunean bertan prezioa 38 eurokoa da. Menua: txorizoa, entsalada mistoa, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurrak. Sagardoa txotxetrik.



Txuleta jatea egingo dute larunbatean. Eta asteartean, berriz, herri-bazkaria axeriekin batera. AIURRI

16:00-21:00 Pilota partidak Arrate pilotalekuan: Zesta puntako San Juan txapelketako finala eta kinielak. Finala 22 urtez azpikoe eta kinielak benjamin, infantil eta nesken mailatan.

17:00-20:00 Andoaindarra elkarteko danborrada. Ibilbidea: Extremadura kalea, Goikoplaza, Agustin Leitza kalea, Goikoplaza.

17:00-21:30 Taloak, Palestinaren alde, Goikoplazan.

17:00-19:00 Oria txaranga Goikoplazan hasita kalez kale.

19:30 Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandaren kontzertua Goikoplazan. Ongietorri Andoainera kulturarteko taldearen lankidetzaz bereziarekin.

22:30 Zezensuzkoa, Goikoplazan.

22:45-01:30 Erromeria Goikoplazan: Olgetan.

23:30-03:30 Kontzertua Nafarroa plazan: Nueva Etapa orkestra.

EKAINAK 22

IGANDEA

11:00 Gipuzkoako pala txapelketako finala, Arrate pilotalekuan.

11:15 Udal Musika Eskolako Mugaz taldeko ikasleak eta Ondarreta Herri Eskolako ikasleak prestatutako ikuskizuna, Goikoplazan. Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako patioan.

11:45 8-11 urte arteko bikoteen kross mistoa: 600 metro.

12:00 Sanjuanetako XVII. bikoteen Kross mistoa. Nerea Fernandez

gogoan. Irteera eta helmuga Nafarroa plazan:

- Ibilbide luzea, 5 kilometrokoa.
- Ibilbide motza: 12-14 urte artekoa 1.600 metroko ibilbidea.
- Nordic walking bikote mistoan ibilbidea egiteko aukera.

12:30 Olagain Txistulari Elkartaren kontzertua, Goikoplazan.

13:15 Kontzejupeko esku-pilota txapelketako finalak: 3. eta 4. lekuak eta finala.

15:30 XXXV. Junior mailako Gipuzkoako Txirrindularitza Itzulia - 2. etapa. Irteera Goikoplazatik eta helmuga La Salle etorbidean.

16:00-18:00 Mahai-jolas erraldoiak, Leizaur parkean.

17:45 XXXV. Junior mailako Gipuzkoako Txirrindularitza Itzulien helmuga La Salle etorbidean.



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus




San Joanetan,
mingaina euskaraz jarri dantzari.

ELIZONDO

FERRETERIA

CORRA SANJUANAKI

La Salle etorbidea, 1 - Andoain

Ferreteria
943 590 302

TABERNA

La Salle etorbidea, 1 - Andoain

Taberna
943 592 802

19:00 Kontzertua Goikoplazan: Mingo Fisuras.

22:30-00:00 Kontzertua Nafarroa plazan: Süne.

00:30-03:30 DJ saioa Nafarroa plazan: Garaiko, Pires eta Chanca.

EKAINAK 23

ASTELEHENA

10:00-13:00 Jolasak Leizaur parkean. Ondoren, apar festa. Nork bere ur-betaurrekoa ekarri beharko du.

17:00-18:00 Garbitzailea haur ikuskizuna, Leizaur Parkean.

18:00 Dantza emanaldia, Goikoplazan. Joseba eta Bakartxo eskolako urbano taldea.

19:00 Dantza emanaldia, Goikoplazan. Klaap dantza eskolako ikasleak.

19:00 Alberto Agirre abesbatzaren eta Udal Musika Eskolako abesbatzen kontzertua, San Martin parrokian.

20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena San Martin elizan, Alberto Agirre abesbatzak eta Udal Musika Eskolako abesbatzek kantatua. Andoaingo herriak Agustin Leitza seme kuttunari esker onez.

20:15 Alkatearen eta Udalbatzaren soka-dantza Goikoplazan.

21:30 Olagain txistulari bandaren kalejira, San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea: Etxeberrieta kalea, Zumea kalea, Kale Nagusia, Goikoplaza.

22:30 San Juan sua, Goikoplazan. Kanpai-errepika, txalaparta eta suziria. Herritarren suaren inguruko dantza eta ohiko emanaldia: Alberto Agirre eta Udal Musika eskolako abesbatzak, Udal Musika eskolako banda eta Olagain txistulari bandaren partaidetza. Ondoren, Euskal dantzen emanaldia Urki dantza taldearen eskutik.

23:15 Agustin Leitza elkartearen danborrada. Ibilbidea: Agustin Leitza elkartea, Goikoplaza, Kaletxiki, Arrate plaza, Pio Baroja kalea, Rikardo Arregi kalea, Arteta eta Agustin Leitza kalea.

23:00-00:30 Kontzertua Nafarroa plazan: Nøgen.

01:00-03:30 DJ saioa Nafarroa plazan: Garaiko, Pires eta Chanca.

EKAINAK 24

ASTEARTEA

08:30 Diana Haizaldi gaitero taldearekin.

10:30-14:30 Artisautza eta janari azoka Goikoplazan, Gabilta eta Napar Bideak elkarteen. Munduko zaporeak Goikoplazan. Atzerritar jatorriko andoaindarrek beren lurraldeetako zizka-mizkak eskainiko dituzte. Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako patioan.

11:00 Meza Nagusia San Martin parrokian, Alberto Agirre abesbatzak abestua.

11:30-14:00 Artisautza azokako tailerra: larruzko giltzatakoka eta pultserak. 8 urtetik gorakoentzat. Txikienek heldu baten laguntza beharko dute.



Aliens Foc Scura taldearen kalejira. ALIENS FOC

12:00 Axeri Dantza, Goikoplazan.

14:30 Axeri Dantza taldearen bazkari herrikoi irekia dantzaren 25-50 urteurrena ospatzeko. La Salle Berrozpe ikastetxeko jolastokian. Bazkal ostean Alaitz Roteta, Gorka Valdes eta Hekthor Folk musikariek girotuta.

17:00-20:00 Artisautza eta janari azoka, Goikoplazan. Munduko zaporeak. Euriarekin Ondarreta Herri Eskolako patioan.

18:00 Herri Kirolak Goikoplazako frontoian. Aizkoran eta korrika: Arkaitz Etxebeste (2024ko binakako Urrezko Aizkorako txapelduna) eta Ugaitz Mugerza (2024ko Euskal

Duatloi txapelduna). Aizkoran enbor bat mozten: Iker Vicente (2024ko Euskal Herriko txapelduna) eta Julen Alberdi "Txikia IV" (2024ko Gipuzkoako txapelduna). Harri jasotzen, harri desberdinekin: Maddi Gesalaga (2024ko harrijasotzaile gazteen txapelduna) Ainitze Zumeta (2024ko Euskal Herriko txapelduna) Estefi Etxebeste Paulo Azpiazu (2024ko Euskal Herriko harri txikien txapelduna) Aizkoran, bikoteko lehian, 10 enbor bakoitzeko: Iker Vicente eta Arkaitz Etxebeste. Julen Alberdi eta Ugaitz Mugerza, Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako patioan.

19:00 Kitadelpare txaranga.

19:30 Bertso jaialdia Goikoplazan. Miren Amuriza, Aitor Mendiluze, Aner Peritz, Saioa Alkaiza, Joanes Illarregi eta Jone Uria. Gai-jartzailea: Unai Ormaetxea Jauregi. Euriarekin, Basteron.

21:00-23:00 Erromeri taldea Nafarroa plazan: Trikidantz.

22:30 Zezensuzkoa, Goikoplazan.

EKAINAK 25

ASTEAZKENA

10:00-14:00 Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka... Euriarekin Ondarreta Herri Eskolako patioan.

13:30 Agintarien harrera laurogei urteko andoaindarrei Udaletxe aurrean. Ondoren, bazkaria.

18:00 Haur danborrada: Aita Larramendi, Ondarreta Herri Eskola eta La Salle Berrozpe ikastetxeetako ikasleen eskutik, alkate txikia eta herriko ordezkariak buru direla. Ibilbidea: Zumea, Kale Berria, Kale Nagusia eta Goikoplaza.

19:30-20:30 Beñat Fernandez, "Pelontxu" andoaindarraren moto erakustaldia, Nafarroa plazan. Euriarekin, La Salle Berrozpe ikastetxeko jolastokian.

21:00-22:45 Kontzertua Goikoplazan: Puro Relajo.

23:00 Aliens Foc Scura taldearen kalejira pirotekniko berria. Juanita Alkain plazatik Goikoplazara. Ikuskizun honekin amaituko dira aurtengo Sanjuanak.

Euskal Herriko trofeoa KEINUKo txapela da!!!
Goikoplaza, 5. ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com

GORA SANJUANAK!

KeiNU

Facebook and Instagram icons.

Several circular trophies and medals are displayed, some with text like "KEINUKO TROFEOA", "ANDOAIN", and "2025".

GORA SANJUANAK!

KUTTUN KAFETEGIA

943 24 61 54 - @kuttunkafetegia

Agustin Leitza, 5. ANDOAIN

The image shows the interior of a cafe with a counter, shelves with books or magazines, and a person working behind the counter.

Elkartasun ekimena

Palestinar herriarekin elkartasun keinua izango da Sanjuanetan herriar talde baten eskutik. Igande, Goikoplazan, 17:00tan, talogileak izango dira eta gondibapena luzatu du antolakuntzak: "Anima zaitetze, eros itzazue gazatarren aldeko taloak!". Bestalde, Andoain-Palestina taldeak eskerrak eman nahi dizkie andoaindarrei Palestinaren alde Elkartasun Egunean erakutsitako "sentsibiltate bereziagatik".



AIURRI

Artisautza eta janari azoka

Artisautza eta janari azoka egingo dute Goikoplazan, San Juan egunean. Goizez eta arratsalde zabalik izango da. Gabiltza eta Napar Bideak elkarteko kideez gain, Munduko zaporeak ekimenekoak ere bertan izango dira. Atzerritar jatorriko andoaindarrek ere beren lurraldeetako zizka-mizkak eskainiko dituzte gune berean.



AIURRI

Bandaren emanaldia

Larunbat iluntzean, 19:30ean hasita, Andoingo Udal Musika Eskolako Bandak emanaldia egingo du Goikoplazan. Bertan parte hartuko dute Ongietorri Eskolara ekimeneko partaideek. Entsegetan aritu dira aurreko asteetan eta, berriki, egin duten ikasturte amaierako ekitaldian, parte hartzen ari diren familieie hurbiltzeko gonbita luzatu diete.



AIURRI



AIURRI

Kros mistoa

San Juan jaietako kros mistoan aukerak zabaldu dituzte: 8-11 urtekoek 600 metroko ibilbidea egingo dute eta 12-16 urtekoek, berriz, 1600 metro. Helduena 5 kilometrokoa da, ohi bezala. Horrez gain, Nordic Walking jarduerari ere tokia egingo diote. Ekainaren 22an da hitzordua, eguerdiko 12:00tan hasita. Antolatzailea Zumeatarra izango da.



AIURRI

Pelontxuren erakustaldia

Beñat Fernandez "Pelontxu" andoaindarra onenen pare lehiatzen ari da nazioartean, bi gorpilen gaineko motorraren gainean. Denboraldi honetan, esaterako, postu onak lortu ditu hainbat lasterketan. Sanjuanetan herriarren aurrean ariko da, zehazki, ekainaren 25ean. Erakustaldia Nafarroa plazan izango da, iluntzeko 19:30ean hasita.

Jaletarako prest?

Urrats
inprimategia

Bluxak, kamixetak, zapiak, txapak...

Egin zuen kuadrillako ezaugarria

Urrats: 688 61 85 48

urrats@urratsinprimategia.com

Ondo pasa festetan!

Xarma
Andoain

943 32 77 26

xarma.andoain

Goikoplaza 8, Andoain 20140

Ekitaldi-sorta, Bertxin pentsiodunen elkartean

Patata-tortillarekin abiatu ziren San Juan jaietako hitzorduak eta datozen egunetarako hitzordu gehiago iragarri dituzte: txapelketak, bazkaria eta San Juan eguneko hamaiketakoa



Patata-tortilla lehiaketara lagun asko hurbildu zen. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN
Ospakizun handietan gertatu ohi denez, Sanjuanetan ere jai egitarau berezia antolatu du Bertxin pentsiodunen elkarteak. Patata-tortilla lehiaketarekin abiatu dira hitzorduak, astearen hasieran. Hogeitortien artean Epi Sotorena izan zen onena, epaimahaiaren ustean. Irabazleak Bertxin elkarteko zuzendaritza batzordeko Flor Lopezen eskutik jaso zuen saria. Datozen egunotan hainbat ekitaldi egingo dira, tartean, bazkaria Oianume jatetxean.

EKAINAK 19

OSTEGUNA

16:00 Tute txapelketa, bazkideentzat.

EKAINAK 20

OSTIRALA

16:00 Toka eta igel txapelketa. Ondoren, sari-banaketa eta zizka mizkak, parte-hartzaile guztientzat.

EKAINAK 21

LARUNBATA

12:00 Erretiratuen aldeko meza.
14:00 Bazkaria Oianume jatetxean.

EKAINAK 24

ASTEARTEA

12:30 San Juan eguneko hamaiketakoa.



Epi Soto irabazleak Flor Lopezen eskutik jaso zuen saria. AIURRI



Epaimahaia: Maite Arruti, Jovita Zarate, Pedro Mateos eta Manuel Fernandez. AIURRI



Lagun taldea, kartetan, astearte arratsaldean. AIURRI





Zutik: Maren Jauregi, Naiara Ramudo, June Mosquero, Maialen Mosquero, Oihane Irastorza, Nahia Caamaño, Maria Navarro. Behean: Irati Fernandez, Irati Zaldia, Ekiñe Morales, Laida Gaston, Mireia Martin. **OSKARBI**

Hamar urte bete ditu Oskarbi

AINHOA MAKAZAGA ETA CRISTINA GALDOS OSKARBI TALDEKO ARDURADUNAK

Dozenaka haur, gazte eta heldu ari dira, urte osoan, gimnasia erritmikoan murgilduta. Berriki, denboraldiaren amaierako ikuskizuna egin dute herrikideen aurrean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Denboraldi bukaerako erakustaldia egin berri duzue Allurralde kiroldegian. Lanak eta urduritasunak igarota, zer moduzko balorazioa egiten duzue?

Ainhoa Makazaga. Oso positiboa, oso ondo joan zen. Orokorrean ondo atera zen eta, oro har, partaideak gustura gaude, baita gu ere, aurreikusitako denboratarte osatu genituelako ko-reografia guztiak. Amaiera polita eman diogu denboraldiari. **Denboraldi bat gehiago, eta dagoneko Oskarbi Gimnasia Erritmikako taldea hamargarren denboraldira iritsi da.**

Cristina Galdos. Lehen urtean Rebecca Calvo izan zen arduraduna eta errelebo eske deitu zidan. 9 urte egin ditut Andoainen eta sentsazioa oso positiboa da. Oinarritik lan egiten hasi nintzen, ahaztu gabe Oskarbi sortu aurretik gimnasia erritmika egiten zela Andoainen.

"ZORIONEZ, PANDEMIAK KIROL JARDUERAN ERAGIN ZUEN BEHERAKADA GAINDITU DUGU"


Denbora tarte horretan garen handia ikusi dut gimnasta askoren artean. Ardurari ekin nionean haurrak ziren eta, urteak igarota, haietako askok gurekin jarraitzen dute. Beraz, perspektibarekin, balorazioa positiboa da: kluba aurrera doa eta, zorionez, pandemiak kirol jardueran eragin zuen beherakada gainditu dugu.

Zein onura ditu gimnasia egiteak?

A.M.: Onura asko ditu ariketa fisikoa eta alor emozionalari erreparatuta. Laguntasuna lantzen da eta norbera indartzeko hainbat balio ere bai. Kirol-jarduera bat da eta norbera



Cristina Galdos. AIURRI



Ainhoa Makazaga. AIURRI

osasuntsu mantentzeko lagun-garria da. Lantzen dira giharrak eta beste kirol jarduera batzuetan uzkuertzen diren beste atal asko. Horrez gain, tapizan, jendetzaren aurrean ari dira eta egoera horiek kudeatzen ikasten dute.

Erakustaldiak eta txapelketak. Zenbaterainoko garrantzia du txapelketak klubaren dinamikan?

C.G.: Txapelketa motibazioa da haurrak erritmikari ekiteko, baina ez da garrantzitsua. Bai, ordea, horra iritsi bitarteko bidea. Gurea partaidetzazko talde bat eta, berez, nahi duenak bakarrik lehiatzen du. Ez dugu aukeraketarik egiten, ez dugu zehazki inoren alde egiten. Adin-ka antolatzen dugu ikasturtea eta LH5 mailara iristen direnean, alebin mailan, lehiatu nahi duen orok parte hartzeko aukera du. Urrats bat da pertsonaren formakuntza, lehiatzen irakasten diegulako. Baina ez diogu mailari erreparatzen, ezta emaitza onari ere. Gimnasia erritmikoan parte hartzeko aukera nahi duen orori luzatzen diogu. Eta, hori esatearekin batera, ondo legoke mutilek ere Oskarbin bat egitea. **Adinean gora doazen partaideek meritu handia dute, ez baita kirol-jarduera erraza.**

A.M.: Ez da erraza, ez. Eta, gainera, urteak aurrera joan ahala, helduarora iritsi ahala, baldintza fisikoak okertuz doaz.

"ALLURRALDEN IZAN GENUEN HARRERA BEROA DENBORALDI OSOAN EGINDAKOARI SARIA DA"

Bestalde, esperientzia irabazten da eta mentalki eskarmentua izatea abantaila handia da, bereziki, jendaurreko emanaldiei ekiteko.

Normalean, gurean, lotura handia egiten da gimnasia erritmikoarekin, taldekideekin eta prestatzaileekin. Horrek guztiak tira egiten du eta, aukera izanez gero, gurea hautu polita da. Denborarekin, normalean, lan kontuen edo ikasketen ondorioz utzi behar izaten dute.

Denboraldi berriari begira, zer duzue buruan?

C.G.: Berrikuntza handi samarra dakar hurrengoak: lau urtez behin lehiaketan kodigoa edo araudia aldatzen da. 2025-2026a iristearekin batera emango da aldaketa hori eta horrek etengabeko ikasketan aritzera behartuko gaitu gu guztiok, entrenatzaileak zein ikasleak. Hainbat ariketa birmoldatzera behartzen gaitu eta, denboraldi berriari begira, beste modu batera lehiatzen ikasi beharko dugu. Errespetuz eta gogo handiz ekingo diogu, beraz, datorenari.

Urnietako gimnasta gazteen taldeak ere zuen klubekoak dira, ezta? Zer moduzkoa da hango dinamika?

C.G.: Ez dago erabat egonkortuta, Andoainen bezala. Hemen adin txikiatarako ordutegiak eta espazioak finkatuta ditugu. Urtetan heldu diogu antolaketa horri, bereziki, lanean aritzeko guneak eskaintzen dizkiguten Aita Larramendi ikastolari, La Salle Berrozpe ikastetxeari eta Allurralde kiroldegia esker. Urnietan kiroldegian aritzeko aukera ematen digu Udalak baina antolaketa finko eta egonkor



Urnietako partaideak, aste honetan ateratako argazkian. OSKARBI

horri eustea kostatzen ari zaigu, aldaketa asko dagoelako urte batetik bestera. Ez dira talde berdinak mantentzen eta nabari da ibilbide motza duela oraindik Urnietan. Haurrak gogotsu daude, baina oraindik ez dugu Andoainen dugun tradizioa antzematen. Izan ere, Andoainen, LHn hasi diren gehien-gehienek aurrera egiten dute. Urnietan, gaurkoz, proba egiteko kirol jarduera bat dela esango nuke. Denbora gehiago eman behar diogu egonkortasuna izan dezan.

Taldeak zer nolako garrantzia du zuentzat?

A.M.: Entrenatzaile bakoitzak du bere taldea eta Cristinak eta nik, bereziki, helduekin lan egiten dugu. Osagarriak gara eta oso ondo lan egiten dugula esango nuke. Horrek aurrera egiten laguntzen digu. Elkarri babes handia ematen diogu, bereziki, lehiaketa egunetan, luze jotzen dutelako.



Gipuzkoako txapelketako sailkapen orokorra: 1, Nahia Caamaño. 2, Maren Jauregi eta Naiara Ramudo. 3, Maria Navarro. OSKARBI

Allurraldeko erakustaldira jendetza hurbildu ohi da. Zer pentsatzen duzue une horietan?

C.G.: Denboraldi osoan eginda-koari saria da eta, bereziki, azkena hunkigarria izan ohi da. Urte osoko lanaren erakusgarria denez, gure partaideek dena

ematen dute. Luze jotzen du koreografia asko dagoelako eta, halere, jendeak harmailetan adi-adi jarraitzen du. Pozgarria da, oso.


Familien babesa jasotzea, bestalde garrantzi handikoa da guretzat.

"Gauzak ondo irteten direnean oso harro sentitzen gara"

JUNE ETA MAIALEN MOSQUERO OSKARBIKO PARTAIDEAK



June Mosquero. AIURRI



Maialen Mosquero. AIURRI

Duela hamabost urte ekin zion gimnasia erritmikoari June Mosquerok. Antzeko ibilbidea du Maialen lehengusuak: 13 urte.

Zein da urteak aurrera joan ahala aurrera jarraitzeko motibazioa?

Maialen Mosquero. Oskarbin osatu dugun lagun-taldea, prestatzaileekin dugun harremana... eta gauzak ondo irteten direnean oso harro sentitzen gara. Aurrera egiteko indarra ematen dit horrek guztiak.

June Mosquero. Niri burua arintzeko bikain datorkit gimnasia aritza, eta barrutik ateratzen dugun indar hori oso baliagarria zait.

Ezin uka zuek aukeratu duzuen kirol jarduerak exigentzia maila handikoa dela. Aurrekoan erakustaldia egin zenuten Allurralden eta prestaketa saio askoren emaitza ikusi genuen bertan.

M.M.: Nahiko gogorra da, astean hirutan entrenatzen baitugu. Sei ordu dira, denera. Tapizaren gainean minutu eta erdian urte osoan landutakoa erakutsi behar duzu.

Fisikoki sufrituko duzue. Non, zehazki?

J.M.: Bizkarra, belauna... saio bakoitzaren osteko luzamenduak garrantzi handikoak dira minak arintze aldera.

Negu gorrian hona etortzea bereziki gogorra egiten al zaizue?

J.M.: Egunerokoa alde batera uzteko modua da niretzat, beraz, urte osoan hona etortzeak ez dit eragozpenik eragiten.

M.M.: Kanpotik ikusita, neguan eta euripean, iluntzeko 19:00tan Allurraldera etorri beharrak gogorra dirudi, baina arratsalde osoa ikasten eman ondoren gimnasia aritza lagungarria egiten zait niri.

Allurraldeko erakustaldi handietan Oskarbiko partaide guztiak elkarrekin egoten zarete. Normalean, txikiekin abiatzen da erakustaldia. Zuek eserita zaudetela, haurrak ikustean, zer da burutik pasatzen zaizuen?

M.M.: Aurrebenjamin eta benjamin mailako taldeen prestatzaileak gara eta, nola ez, gure iragana irudikatzen dugu haur horiek ikustean.

J.M.: Garai hartan disfrutatzen nuen erritmikan eta ondo sentitzen naiz oraindik ere haur nintzeneko sentimendu horri eusten diodalako.





Aurtengo podiuma. AIURRI

Gipuzkoako Azkartasunezko txapelduna da Gabirondo

Zizurkilgo Lartin baserriko belazean gailendu zen, Oier Urkola txapeldun-ordeari 43 segunduko aldea ateraz

Erredakzioa ZIZURKIL

Julen Gabirondo urnietarra izan da azkarrena aurreko asteburuan jokatu den azkartasunezko sega txapelketan. Bost segalari lehia-tu ziren Zizurkilgo Lartingo belazean. Urnietarrak bost minutu eta hamalau segundu behar izan zituen bere bi sailak moz-

teko. Oier Urkola izan zen bigarren, bost minutu eta berrogeita hamazazpi segundu eginda. Mikel Lizartza, Jon Otegi eta Jon Larrañaga sailatu ziren, hurrenez hurren, hurrengo hiru postuetan. Eguraldi freskoarekin baino ateri, segarako giro ederra izan zuten.



Gabirondo, laguntzaile-taldea eta ikusleak gertu zituela. AIURRI



Azken urteotan Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapel ugari lortu ditu Julenek. AIURRI



Larrañaga eta Urriza, ezkerrean. Eskuinean, txapeldunak: Barrenetxea eta Aldabe. ORIAMENDI

Aldabe eta Barrenetxea, txapeldun Galarretan

Sagardoaren Txapelketako finala irabazi zuten Urriza eta Larrañagaren aurka (9-15 / 7-15), joan zen astelehenean Galarretan jokatu zuten finalean. Oialume Zar taldeak eraman du, beraz, txapela. Txapeldun-orde, berriz, Petrítegi

Erredakzioa URNIETA

Kemen Aldabe eta Endika Barrenetxea IV (Oialume Zar) garraile atera ziren Sagardoaren Txapelketako finalean, astelehen honetan Hernaniko Galarretan jokaturako partidari. Aurkariak, Javi Urriza eta Iban Larrañaga (Petrítegi), 0-2 menderatu zituzten, 9-15 eta 7-15eko markagailuarekin.

Giro bikaina izan zen eta lehen seta oso dinamikoa izan zen, hiru zatitan banatuta. Aldabe eta Barrenetxea indartsu hasi ziren, sei tanto jarraian eginda (1-6). Ondoren, Urriza eta Larrañagak erantzun bikaina eman zuten eta beste sei tantoz aurretik jarri ziren (7-6). Berriz berdinduta (9-9), Oialume Zarreko bikoteak azken kolpea jo zuen eta sei tanto jarraian eginez 9-15ekoa jarri zuen amaieran.

Bigarren setean, Aldabe eta Barrenetxeak jokoaren eta markagailuaren kontrola izan zuten uneoro. Lehen setean bezala, 1-6

aurreratu ziren eta ez zuten abantaila galtzen utzi. Urriza eta Larrañaga hiru tantora hurbildu ziren (5-8 eta 7-10), baina ez zuten alde hori gaintitzea lortu. Azkenean, 7-15 irabazi zuten Aldabek eta Barrenetxeak, eta txapela eskuratu.

Finalaren amaieran, Endika Barrenetxea IV izendatu zuten Txapelketako Pilotari Onena.

Hernaniar atzelariak bere lehen Sagardoaren Txapelketan irabazi zuen, eta txapela horrek ilusio berezia eragin zion. Partidak une berezi bat ere izan zuen: Javi Urrizak partida ofizial batean jokaturako azken partida izan zen. Nafarroako aurrelariak ez zuen nahi bezalako emaitza lortu, baina merezitako txaloak jaso zituen.



Urnietako
udala



Egape Dantza Taldeko kide zaharrenek osatzen dute Plus taldea. AIURRI

Hitzak, dantzan jarrita

Joan den igandean, ikasturte amaierako emanaldia egin zuen Egape Dantza Taldeak, Sarobe arte eszenikoen gunean, Edu Muruamendiarazen gidaritzapean: “Hitzak dantzan”. Ikuskizunaren argazki-bilduma Aiurri.eus gunean ikusgai dago

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ikasturte osoko ibilbideari amaiera biribila eman zion Egape Dantza Taldeak, joan den igande iluntzean: urtero legez, Sarobe arte eszenikoen oholtza hartu zuten dantzariak, “Hitzak dantzan” emanaldia taularatzeko. Guztira, hamazazpi koreografia oholtzaratu zituzten hamabi urtetatik hasi eta hamazazpi urte bitarteko ia 50 dantzariak.

Aurten, gorputzaren mugimenduari ez ezik, hitzari ere garrantzia eman dio taldeak, izan ere, dantza batetik besterako jauzia egiten lagundu zuten Josu Garcia Larrañagak emanaldirako espresuki sortutako bertsoak. Dantza bakoitza gai bati lotu eta euskal kulturaren errotuta dauden hitzorduak izan zituzten hizpide, besteak beste: urte berri baten hasierako ohi-turak agindu bezala, upelen artean txotx eginez ekin zioten ikuskizunari dantzariak. Hala, jarraian entzundako Santa Ageda bezperako makil-kolpeek bide eman zieten Inauteriei. Zirkuko malabaristek, pailazoek zein akrobatek hartu zuten oholtza, ostean, Aste Santuko melodia zurrunei lekukoa eman aurretik. Hariari tira egin eta udaberriko loratzeari keinu eginez, kolore

biziz bete zuten arte eszenikoen gunea, ondoren, dantzaz dantza, suaren txinpartaren inguruan San Juan bezpera ospatzeko. Eta uda sasoiaren etortzearekin batera, Iruñea aldera jo zuten ikuskizunak, gero, uztailean murgildu, arropa zuri gorria jantzi eta entzierrora hurreratzeko. Bada, zezenetatik ihesi, uretan murgildu ziren dantzariak, piratekin zein kortsarioekin oholtza aboratzeko. Eta, hara non, agertu ziren estropadak, egun epelak amaituta, irailan porturatzeko prest. Bada, urtero lez, ikasturte berriaren bueltan urnietarrek egiten duten antzera, Marizulora begira ipini ziren dantzariak, buruhandiekin batera, Mielari agurra egiteko asmoz. Eta udazkenak dakartzen egun motzek ere tokia izan zuten ikuskizunean, baita Gau Beltzaren kalabaza beldurgarriek, indarkeria matxista salatze aldarrikapen feministek eta euskararen aldeko irrintziak ere. Urteak hamabigarren

**HITZA ETA
DANTZA UZTARTU
ZITUZTEN
SAROBEO
EMANALDIAN**

hilabetearekin amaitzen diren bezala eman zioten bukaera ere dantzariak ikuskizunari, neguko freskotasunean, guztiak elkarrekin, bertso-kantuan: *Gaur Sarobeko palkoa antzoki onenen kalkoa sentipenei asaltua Guk dantzaz zuei eta zuek guri txaloz itzulitakoa bihotz taupaden saltua Amona baten, alkoa ederra izan da gaurkoa*

Plus taldearen emanaldia

Egape Dantza Taldeko kide zaharrenek osatzen dute Plus taldea. Bada, horiek ere izan zuten zer eskainia: zazpi piezaz osatutako ordu erdiko emanaldi bat taularatu zuten hamalau dantzariak, ikuskizun nagusiaren aurretik. Dena dela, ez da aurten plaza hartzen duten lehen aldia, Gazte Festetan egin ohi den “Urnieta Dantzan” ekimean ere izan baitziren kalez kalez, baita Plazido Muxika plazan ere.

**ORDU ERDIKO
EMANALDIA EGIN
ZUEN HELDUENEK
OSATURIKO
PLUS TALDEAK**

Ikasturte amaierako erakustaldia



Euskal kulturaren errotuta dauden hitzorduak izan zituzten hizpide. AIURRI



Bertsoak egin zuten dantza batetik besterako lotura. AIURRI



12-17 urte bitarteko ia 50 dantzariak parte hartu zuten Saroben. AIURRI



Gorputzaren mugimenduari ez ezik, hitzari ere garrantzia eman zioten.